



IRIZPIDEAK, AUTOBUS-GELTOKI ZAHARREKO NASEN EREMUA ERABILTZEA BAIMENTZEKO

1. artikulua - Xedea

Baldintza hauen xedea da batetik, irizpideak ezartzea Iruñeko Udalaren Autobus Geltoki Zaharreko nasen erabilera eta funtzionamendua baimentzeko, eta bestetik erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak ezartzea.

I. eranskinean jasotako planoko bilbeak mugatuko du zer eremu hartzen duten erabiltzeko baimenek.

2. artikulua - Ondasunen kalifikazio juridikoa

Toki-entitateei buruzko foru-arauek ezarritakoaren arabera, Autobus Geltoki Zaharreko nasak jabari publikoko ondasun kalifikazioa duen espazio baten parte dira.

3. artikulua - Erabilera lagatzeko baldintzak

Autobus Geltoki Zaharreko nasen eremua erabiltzeko nahitaezkoa da Tokiko Ekonomia Jasangarriko Zinegotzi Ordezkariek emandako baimena.

4. artikulua - Erabilera

1. Autobus Geltoki Zaharreko nasak hainbat jardueratarako erabiliko dira, betiere jarduera horien helburu nagusia ekonomia sozial eta solidarioa, kultura, artea, gizarte-ekimena eta gazteendako jarduerak bultzatzea eta hedatzea bada eta halako balioak sustatzen badituzte: genero-berdintasuna, kultura eta belaunaldi ezberdinen arteko harremana eta herritarren parte-hartzea bizitza sozialean.
2. Erabilera horiek gorabehera, bertako azpiegiturekin bateragarri diren jarduerak baimendu ahalko dira kasuan kasuko inguruabarretan, betiere Udalaren interesekoak badira eta ez badute eragin negatiborik aurreko atalean aurreikusitako erabilera nagusietan.
3. Zerrenda zehatzik egiteko inolako asmorik gabe, Autobus Geltoki Zaharreko nasak erabili ahalko dira – betiere aurreko bi puntuetan eskatutako baldintzak betetzen badira– honako hauetarako adibidez: merkatuak, erakusketak, lantegiak, erakustaldiak, topaketak, informazio-jardunaldiak, herri-ekimeneko festak, jaialdiak, herri-ospakizunak, animazio-jarduerak, etab.



5. artikulua - Ordutegia eta egutegia

Erabilera-ordutegia 11:00etatik 21:00etara izango da, astelehenetik igandera, jaiegunak barne.

Muntatu eta desmuntatzeko lanak, halakorik behar izatera, haur-parkea itxita dagoenean egin beharko dira oro har, hots, 11ak baino lehen eta 21:00ak eta gero.

Eremua itxita egongo da egun hauetan: urtarrilaren 1ean eta 6an, uztailaren 6tik 14ra, eta abenduaren 24an, 25ean eta 31n.

6. artikulua - Nola erabili

1. Nasak erabiltzeko baimena duen pertsonak jarduera egin aurretik ordaindu beharko ditu dagozkion tarifak, zeinak jasota baitaude Udalaren aretoak eta espazioak erabiltzeko prezio publikoak arautzen dituen 1. Arau fiskalean.

Halaber, nasak erabiltzeko baimena duen pertsonak jarduera egin aurretik fidantza bat jarri beharko du, baimendutako erabileraren ondorioz izan ditzakeen arduren aurrean erantzuteko. Fidantza horren zenbatekoa baimenaren ebazpenean zehaztuko da, gauzatzekoa den jardueraren, haren eraginaren eta erabilera-maiztasunaren arabera .

Behin jarduera amaituta fidantza itzuliko da, interesdunak aldeztu aurretik eskatuta, betiere Udalak baimena emateko galdatutako baldintzak bete direla eta zehapen baten ondoriozko isunik ordaintzeke ez duela egiaztatuta ostean.

2. Erantzun zibileko aseguruia izan beharko dute jardueraren antolatzaileek, eta aseguru horren gutxieneko estaldura baimenaren ebazpenean zehaztuko da, aintzat hartuta egitekoa den jarduera eta haren eragina, erabilera-maiztasuna eta erabiltzaileendako arriskua.
3. Hala pertsona fisikoek nola juridikoek eskatzen ahalko dute instalazioak erabiltzeko baimena, baldintza hauetan jasotako irizpideekin bat. Baimena eskuratzeko honako baldintza hauek bete beharko dituzte aldeztu aurretik bai baimendutako pertsonak, bai jardueran parte hartzen dutenak:
 - a. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan dagokion epigrafeetan eta esparruan alta emanda egotea, eta eguneratuak izatea zergaren ordainketak, edo, Europar Batasuneko kide diren estatuetako pertsonen kasuan, horren baliokidetzat ezarritako zergarenak.
 - b. Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean alta emanda egotea, edo, Europar Batasuneko kide diren pertsonen kasuan, horren baliokide den araubidean, eta zorrik ez izatea kontzeptu horrengatik.



- c. Europar Batasunetik kanpoko herritarren kasuan, atzeritartasun arloan indarrean den legediak eskatutako egoitza- eta lan-baimena izatea.
 - d. Egunean izatea Udaleko Ogasunarekiko ordaintzeko betebeharrak.
4. Edonola ere, Udaleko Alor eskudunek jarduera jakin batzuk egiteko debekua ezarri dezakete, betiere modu arrazoituan adierazi beharko delarik dagokion erabilera-eskabideari baimena aitortzeko nahitaez egin beharreko txostenetan. Txosten horien berri jakinaraziko zaie interesdunei, erabiltzeko baimenaren ebazpenarekin batera.

Zehazki, debeku da piercing- edo tatuatze-jarduerak egitea, izan iraunkorrak izan aldi baterakoak.

5. Baimena zer jarduerarako eskatu eta hori gauzatu bitartean, dauden komunek higiene-egoera egokian egon beharko dute beti.

Orobat, aurreikusitako edukieraren arabera, behar beste komun paratu beharko dira – saneamendu-sarearekin konektatutako komun osagarriak edo komun kimikoak– . Komunek horien erabilera zuzena egiteko beharrezkoak diren elementuak izan beharko dituzte, eta jendeari irekita egon behar dute baldintza egokietan, mantentzeari, funtzionamenduari eta garbiketari dagokienez, jarduera jendearendako ireki eta itxi bitarteko tarte horretan behintzat.

6. Hiri-hondakinen pareko diren hondakinak – jarduera gauzatzean, muntatzean eta desmuntatzean sortutakoak– gaikako edukiontzi arruntetan bildu beharko dira. Horretarako, sortutako hondakinak egoki biltzeko behar beste edukiontzi paratuko dira egoki jotako gunetan.

Hiri-hondakinen pareko ez diren hondakinak baimendutako kudeatzaile bati eman beharko zaizkio.

7. Geltokira sartzeko bideek eta 1. eta 3. nasen arteko pasabideek libre egon beharko dute, eta ezingo dira eremu horiek erabili produktuak, hondakinak edo bilgarriak gordetzeko, ez eta bertan ezein instalaziorik jartzeko ere. Geltokiko ateetan ez da egongo traba eragiten duen elementurik, larrialdirik egonez gero ahalik eta lasterren irekitzeko.
8. 3. nasaren eremuan diren jolas-instalazioak kendu behar izanez gero, baimendutako pertsona izango da horren erantzule; hartara, instalazio horiek kendu eta lehengo baldintza berberetan berriz paratzeko lanak bere gain hartu beharko ditu.
9. Behin jarduerak amaituta, jarduerak egin aurreko baldintza berberetan gelditu beharko da eremua. Horretarako, erabili aurretiko egoera berberean egon dadin beharrezko mantentze- eta garbiketa-lanak egin beharko dira, jarduera amaitu eta berehala. Higieneari eta Osasungintzari buruzko oinarrizko Ordenantzarekin bat egin beharko da garbiketa.



10. Herri Segurtasunaren esparruko Alor eskudunak erabiltzeko baimena aitortzeko emandako nahitaezko txostenean ezarriko da jardura bakoitzerako gehieneko edukiera.
11. Nasak erabiltzeko baimendutako pertsonak kontrolatu beharko ditu sarbideak eta baimendutako edukiera betetzen dela. Behin instalazioari esleitutako edukiera betez gero, galarazi egingen da eremura jende gehiago sartzea.
12. Nasak erabiltzeko baimendutako pertsonaren ardura da saihestea jardueretan parte hartzen dutenek nasak ez diren eraikineko beste eremuetara sartzea. Xede horretarako langileak izan beharko ditu, hala behar izatera.
13. Eremua zein jardueratarako lagatu den eta horrek doakoa izan beharko du.
14. Jarduerengatik ezin izango zaio inori sarrera galarazi.
15. Muntatze eta desmuntatze lanak Autobus Geltoki Zaharra erabiltzen dutenen kontura joanen dira, eta haiek egingen dituzte, kasuan kasuko udal-teknikarien ikuskapenaren pean. Halaber, haien kontura joanen dira, baita ere, zaintza- eta garbiketa-gastuak eta ekipamenduak muntatu zein desmuntatzeko lanek eragindakoak, eta jardura bera egiteak eragindako gastuak.
16. Konexio elektrikoak egin behar izanez gero, 1. nasan kokatutako elektrizitate-koadroa soilik erabiliko da.
17. Udaleko-teknikariek eta udaltzainek esaten dutenari men egingo zaio uneoro.

7. artikulua - Eskaerak eta baimenak

1. Autobus Geltoki Zaharreko nasak erabiltzeko derrigorrean eduki beharko da behar den baimena. Horretarako, Udaleko Alor eskudunen txostenak eskuratu beharko dira. Txosten horietan jasoko dira baimendutako jardura bakoitzaren berariazko baldintzak, zeinak derrigorrean bete beharko baitira eta dagokien udal langileek kontrolatuko baitituzte.
2. Erabilera-eskabidea eremua noiz erabili nahi eta gutxienez 45 egun lehenago aurkeztu beharko da, telematikoki, Egoitza Elektronikoan, edo, bestela, Iruñeko Udalaren erregistro-bulegoetan, posta-bulegoan, edo, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako beste edozein tokitan.
 1. eranskinarekin bat egingo da eskabidea, eta horrekin batera aurkeztu beharko dira honako hauen inguruko agiriak:



- a. Egitekoa den jardueraren deskribapena, xehe-mehe azalduta instalazio bakoitzaren jarduera konkretuak, instalazioen tipologia, kopurua eta neurriak, parte hartu behar duten titularren datuak, giro-musika egon behar den edo megafonia-ekipamenduak jarri behar diren, etab.
 - b. Muntatze- eta desmuntatze-lanen datak, jardueraren datak, ordutegiak.
 - c. Plano zehatza, paratu nahi diren instalazio guztiak eta horien neurriak adierazita. (2. eranskina, beterik - Planoa)
 - 1. nasan postuendako bi lerro paratzen badira, gomendagarria da lerro horiek alde banatan kokatzea, hartara oztoporik gabeko ebakuazio bidea uzteko erdialdean, 2,5 m-koa.
 - d. Ostalaritza-jardueratarako metro karratuak, guztira; eta, baita ere, bestelako jardueretarako metro karratuak, guztira.
 - e. Bestelako premiak (hesiak, ur- eta argi-harguneak, etab.).
 - f. Eskatzaileak/antolatzaileak honako hauek atxiki beharko ditu:
 - Erantzukizuneko aitortpena, parte hartuko duten guztiek baldintza hauetako 6.3 artikuluan aipatutako betekizunak betetzen dituztela adierazten duena.
 - Egiagiaztagiria, eskatzaileak/antolatzaileak baldintza hauetako 6.3 artikuluan aipatzen diren baldintzak betetzen dituela frogatzeko.
 - g. Edozein motatako azpiegiturak instalatzea beharrezkoa bada (standak, karpak, agertokiak, soinu-ekipoak, konexio elektrikoak, ur-harguneak, etab.), eskatzaileak edukiera-txosten bat eta teknikari eskudunak (arkitekto tekniko kolegiatua) sinatutako ebakuazio-plana erantsi beharko ditu.
3. Ostalaritzari eta elikadurari lotutako jarduerarik egiten bada, 2. puntuko agiriez gain, jarduera horiei buruzko berariazko dokumentazio hau entregatu beharko da:
- a. Eskatutako jarduera bakoitzaren izaera: doako dastatzea, erakustaldia edo salmenta.
 - b. Egitekoa den jarduera bakoitzaren deskribapena: adierazi beharko da soilik salmenta-jarduera den ala elikagaien manipulazioa egongo den. Elikagaiak zatitu edo ebakitzen badira (esaterako, hestebesteak xerratzea), edo janariak prestatzen badira (produktuekin egindako tostadak edo pintxoak prestatzea), eskuak garbitzeko konketa eta higiene-produktuak eduki beharko dira.



- c. Postu eta jarduera bakoitzaren titularren zerrenda.
- d. Eskainiko diren produktu-motak era horiek kontserbatzeko eta erakusteko baldintzak (ontziratutako gabeko elikagaiak jendearen irismenetik kanpo egon beharko dute).

Ontziratutako elikagaiak behar bezala etiketaturik egongo dira, dituzten osagaiak eta alergenok aipatuta; ontziratutako gabe eskainiko diren jakien kasuan eta saltokietan prestatzen direnen kasuan ere elikagaien gaineko informazioa eduki beharko da, alergenoen ingurukoa barne, 126/2015 Errege Dekretuan xedatutakoarekin bat.

- e. Instalazioak egiteko tokia eta data, eta jardueraren ordutegia, baldin eta gainerako jarduerekin bat ez badatoz.
- f. Instalazioen ezaugarriak:
 - o egitura-motak (ibilgailuak, saltokiak,...), neurriak, eta dituzten baliabideak: harraskak, eskuak garbitzeko konketak (eskuz abiarazten ez den txorrotaz hornituak – ez dira onartuko ukondoarekin abiarazten diren txorrotak– egon beharko dute, derrigorrean, baldin eta bertan prestatzen badira jakiak, eta jaki-zerbitzua duten ostalaritza-jarduerak badira), ur hotza eta beroa, ur-hornidura sistema, konexioa saneamendu-sarearekin, eskuak garbitzeko higie-ne-elementuak (xaboia dosifikatzeko gailuak eta eskuak lehortzeko higie-ne-sistema), erabiltzekoa den baxera, ontzi-garbigailua (aintzat hartu behar da hori exijitzen dela hala ontzi berrerabilgarriak nola jakiak prestatzeko erabilitako tresna, ontzi eta edukiontziak garbitzeko), hozkailuak (nahitaez erabili behar da prestatutako jaki jakin batzuk, saltzeko erakusgai jartzen direnak eta prestaketa-prozesuan hozkailuan egon behar duten lehengaiak gordetzeko), lan egiteko tokiak, lanabesak eta hondakinak eta erabilitako olioak biltzeko sistema.
 - o Jardueran zerbitzatzen duten langileen zerrenda, eta horiek elikagaien higie-nearen gaineko prestakuntza jaso izanaren egiaztagiria.

- 4. Animaliekin loturiko jarduerarik egiten bada, 2. puntuko agiriez gain, jarduera horiei buruzko berariazko dokumentazio hau entregatu beharko da:

- a. Eskatutako jarduera bakoitzaren izaera zehaztu beharko da: erakustaldia, lehiaketa, ikuskizuna edo kultur ekitaldia.
- b. Egitekoak diren jardueren deskribapena.



- c. Instalazioak egiteko tokiak eta datak, eta jardueraren ordutegia, baldin eta gainerako jarduerekin bat ez badatoz.
 - d. Postu eta jardueren titularren zerrenda.
 - e. Jatorrizko haztegien erregistro-zenbakia.
 - f. Animalien espezieak eta kopurua, eta galda daitekeen dokumentazioa (animalien identifikazioa, lekualdaketa-agiria, garraio-ibilgailuak, osasun-agiriak).
 - g. Animaliak egoteko instalazioen deskribapena: ur- eta elikagai-hornidura.
 - h. Animalien ongizaterako hartu beharreko neurrien deskribapena.
 - i. Jarduteko plana, animalia edo pertsonendako arrisku-egoerarik gertatuz gero aplikatzekoa.
 - j. Garbiketa eta desinfekzioa, jarduerak egin bitarte eta amaitutakoan.
5. Bigarren eskuko altzari, dekorazio-artikulu eta arropen salmentarekin loturiko jarduerarik edo trukerik aginez gero, artikuluek Higieneari eta Osasungintzari buruzko oinarritzko Ordenantzaren 25. artikuluko baldintzak bete beharko dituzte, eta aplikatutako tratamendua justifikatzen duen dokumentazioa saltokian eskura izan beharko da uneoro.
6. Prezioa eta fidantza behin erabilera baimendu eta hori gauzatu baino lehen ordaindu behar da.
- Horiek eta erantzukizun zibileko aseguruaren poliza ordaindu izanaren frogagiriak baimendutako jarduera hasi baino lehenago aurkeztu beharko dira, telematikoki, Egoitza Elektronikokoan, edo, bestela, aurrez aurre Iruñeko Udalaren erregistro-bulegoetan, posta-bulegoan, edo, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako beste edozein tokitan.
7. Autobus Geltoki Zaharreko nasak erabiltzeko baimena besterenezina da; horrenbestez, baimenaren titularrek ezin izanen dizkiote baimendutako erabilerak inori lagatu, ezta inorekin elkartrukatu ere, salbu Udalaren onspena badute.
8. Instalazioetan ustekabeen konponketarik egin behar izanez gero, saiaturik da antzeko ezaugarriak dituen beste espazio bat eskaintzen. Hori posible ez balitz, erabiltzaileak eskubidea izanen luke kasuan kasuko prezio publikoa eta fidantza itzul diezaiotela eskatzeko.



9. Edonola ere, interesdunak uko egin ahalko dio erabilerari, Udalaren aretoak eta espazioak erabiltzeagatik prezio publikoak erregulatzan dituen Arauak jasotzen dituen inguruabarretan.

10. Autobus Geltoki Zaharreko nasak erabiltzeko baimena, dena dela, Iruñeko Udalaren beharrek mugatuko dute.

Iruñeko Udalak beretzat gordeko du baimendutako erabilerak Udalaren interesengatik aldatzeko edo baliogabetzeko ahalmena, interesdunei eragin ahal izan dizkien kalteak direla-eta erantzun beharrik gabe, salbu ordaindutako prezioak interesdunei itzuli behar izatea.

11. Iruñeko Udalak salbuespenez baimentzen ahalko du nasen erabilera, artikuluko honetako 2. atalean adierazitakoa baino epe laburrago batean eskatutako jarduerak egiteko, baldin eta honako baldintza hauek guztiak betetzen badira:

- Aurreikusita egotea jarduerak Iruñeko bide publikoan egitea eta alor eskudunaren baimena (Herritarren Segurtasuna) edukitzea bide publikoa okupatzeko.
- Txarra izan daitekeen eguraldia (euri-jasak edo haize-bolada gogorrak edo muturreko tenperaturak) iragarrita egotea edo jarduera hori baimendutako bide publikoan egitea ezinezko bihurtzen duten ezinbesteko beste egoera batzuk gertatzea. Iruñeko Udalak baloratuko du zenbateraino den txarra iragarritako eguraldia edo bat-batean gertatutako egoeren eragina, eskatutako jarduera-motaren arabera.
- Nasak ez egotea aurrez eskatuta beste jarduera bat egiteko.
- Jarduera egiteko ez izatea beharrezkoa ez azpiegiturarik ez ikus-entzunezko ekiporik instalatzea, ezta Udaleko beste hainbat alorren txosten teknikoak eskatzea beharrezko egiten duen beste inolako elementurik ere. Ezin izango da ostalaritza- edo elikadura-jarduerarik egin, ezta higie- eta osasun-txostenik edo -ikuskaritzarik behar duen beste edozein ere.
- Eskatutako jarduera bateragarri izatea nasen gainerako espazioen erabilerekin eta, oro har, erabilera-irizpideei buruzko dokumentu honetan jasota dauden gainontzeko baldintzak betetzea.
- Zorrozkiz betetzea baimenean seinalatutako gehieneko edukiera.
- Dagokion prezio publikoa ordaindu beharko da, 1. Arau Fiskalean argitaratutako tarifen arabera, non Udalaren lokalak eta guneak erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen baitira.



Baimen berezi-mota honek berariazkoa izan behar du, eta jarduera egin aurretikoa. Baimena izapidetzeko beharrezkoa izango da nasen kudeaketaz arduratzen den alorraren txosten teknikoa. Erabiltzeko eskaera larunbaterako edo iganderako bada, eskabidea beranduenez aurreko ostiralean egin beharko da, 12:00ak baino lehen.

Zenbait eskaeraren izaera berezia eta bat-batekoa dela eta, denboraren arabera, Ebazpena espazioa erabili eta gero onesten ahalko da, eta bertan jasoko da ordaindu beharreko prezio publikoaren likidazioa, baldin eta aurrez ordaindu ez bada.

8. artikulua - Objektu pertsonalen zaintza

Iruñeko Udalak ez du ardurarik hartuko baimenaren xede diren jarduerak egin bitarte eremuan galdu edo hondatutako objektu pertsonalen gainean.

9. artikulua - Erabilera-lehentasunak

Erabilera-baimena lortzeko bateraezin diren bi eskabide edo gehiago baldin badaude aldi berean, Autobus Geltoki Zaharreko nasak erabiltzeko baimenak erabileren arabera lehentasunezko irizpide-zerrenda honen hurrenkerari jarraikiz emango dira:

1. Espazioa kasuan kasuko jarduerarako egokia izatea.
2. Egitekoa den jardueraren eragin soziala, halakotzat joko delarik xede-publiko gisa har daitekeen pertsona-kopurua.
3. Irabazi-asmorik ez izatea.

Bi jardueren arteko lehentasun-berdinketa gertatuz gero, erabilera-eskabidearen sarrera-data hartuko da kontuan. Oraindik ere berdinketa egonez gero, zozketa bidez erabakiko da.